

d) Eskolaren antolaketaren eta curriculumari, didaktikari eta antolaketa eta funtzionamenduari buruzko dokumentuen gaineko ezagutza

1. maila: Oinarrizkoa

Ez ditu behar beste ezagutzen ikastetxeko curriculumari, didaktikari (ICP, programazioak, AJA, etab.) eta antolaketari buruzko dokumentuak, edo ez ditu bere jardunaren erreferentziatzat hartzen.

2. maila: Garatze bidean

Ezagutzen ditu ikastetxeko curriculumari, didaktikari eta antolaketari buruzko dokumentuak (HP, ICP, programazioak, AJA, urteko plana, memoria) eta, bereziki, irakasten dituen eremu / arlo / ikasgaiei dagozkienak. Denak ditu bere jardunaren erreferentetzat.

3. maila: Garatua

Xehetasunez ezagutzen ditu ikastetxearen antolaketari buruzko alderdiak eta gaitasuna edo ideiak ditu antolaketa hori egiten laguntzeko. Dokumentu horien arteko koherentzian, jarraitutasunean eta konexioan laguntzen du. Dokumentu horietan ezarritakoaren arabera jarduten du eta gainerako irakasleek dokumentuok ezagutzea sustatzen du.

4. maila: Aurreratua

Sakonki ezagutzen du bere ikastetxearen antolaketa eta, oro har, gainerako ikastetxeena. Horri esker, ekarpenak edo hobekuntza-proposamenak egiten ditu bere ikastetxearen funtzionamendua eta ikastetxeko curriculumari eta didaktikari buruzko dokumentuen edukia hobetzeko. Ikastetxearen eta beste ikastetxe batzuen erreferente da jardunbide egokiak partekatzen dituelako eta aipatutako dokumentuen edukiak prestatzeko ereduak eta gomendioak ematen dituelako.